



Hizkuntza Plangintza ikastaroa. Internet bidezko gradu-ondokoa.

Ikaslea: Elias Zumalde Barrena

SAKONTZE EGITASMOA:

ERDALDUNAK ETA EUSKARA PLANAK

Tutorea: Imanol Larrea Mendizabal

1.	SARRERA	1
2.	EUSKARA PLANEN BILAKAERA ERDAL HIZTUNEN PARTE HARTZEAREN IKUSPEGITIK.....	2
2.1.	HIZKUNTZA KOMUNITATEA	3
3.	JARRERA MOTAK	5
4.	EUSKARA NORMALIZATZEAREN AURKAKO DISKURTSOAK	9
4.1.	EKONOMIA	9
4.2.	DENBORA	11
4.3.	GLOBALIZAZIOA	12
4.4.	PRESTIGIOA: HIZKUNTZAREN BALIO EZA	15
4.5.	INPOSAKETA.....	18
4.6.	ZAILTASUNA	20
4.7.	POLITIZAZIOA	21
4.8.	BARNE KOHESIOA - LAN HARREMANAK	22
5.	EUSKARA IKASTEKO/ERABILTZEKO PROZESUA	24
5.1.	EUSKALDUNTZE PROZESUA	24
5.2.	MOTIBAZIO ESTRATEGIAK.....	27
5.3.	MOTIBAZIO MOTAK.....	28
5.4.	NOLA MOTIBATU EUSKARA IKASTEKO.....	30
6.	ERDAL HIZTUNAK ERAKARTZEKO MODUAK	32
6.1.	PARTE HARTZEA	34
6.2.	INFORMAZIOA VS KOMUNIKAZIOA.....	35
6.3.	FORMAZIOA	36
6.4.	HURBILTASUNA.....	39
6.5.	EUSKAL HIZTUNEN PORTAERA.....	40
6.6.	HIZKUNTZA ESKUBIDEAK	42
6.7.	AITORMENA.....	44
6.8.	HARREMAN SAREAK.....	45
6.9.	HIZKUNTZA ETA KULTURALA	47
7.	ONDORIOAK	48
8.	BIBLIOGRAFIA	51

1. SARRERA

90. hamarkadaren hasieran, ELAY, MCC eta IKERLANgo esperientzia pilotuak martxan jarri zirenetik gaur arte bilakaera nabarmena izan dute lan munduko euskara planek. Geografikoki ia Euskal Herri osora hedatu dira. Hasieran, eskualde euskaldunetan zeuden enpresak abiatu zituzten planak, eta bertako langileen portzentaje altua euskalduna zen. Gaur egun, gutxika-gutxika gauzak aldatzen ari dira. Euskara planak Euskal Herri osoan barna ari dira hedatzen, bai euskaldunen portzentaje altua duten eskualdetan baita Euskal Herriko hainbat zonalde erdaldunetan ere, esate baterako, Gasteizen, Basaurin edota Orkoienen.

Euskara plana inplementatzen ari diren enpresen tipologiari begiratuta, berriz, era guztietakoak aurkituko ditugu: handiak eta txikiak; zerbitzu edota produkzio enpresak; kooperatibak edota elkarte anonimoak; elkargoak edota taldeak...

Metodologiaren arloan ere, zalantza barik, asko aurreratu da. Gaur egun, euskara planak planifikatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko makina bat tresna eta bitarteko ditugu. Euskara teknikariok ere bagoaz esperientzia metatzen eta hobekuntzaren eta berrikuntzaren bidetik planak garatzen. Asko aurreratu da zalantza barik. Baina bada, nire iritzian, oraindik ganoraz landu ez den alderdi bat, erdal hiztunak. Bi galdera nagusi planteatuko nituzke:


- a) Zer egin behar dugu erdaldunak euskal hiztunen komunitatera erakartzeko?
- b) Zer leku dute erdaldunek Erabilera Planetan?

Horixe da, hain zuzen ere, lan honetan aztertuko dudana: zer egin erdaldunek euskara ikasi nahi izateko, ikasteko eta euskal hiztunen komunitateko kide sentitzeko, batetik, eta, euskaraz ikasteaz gain, beste zer rol jokatu dezaketen erdaldunek euskararen erabilera planetan.

Azterlan honetan azalduko ditudan ez dira azterketa zientifikotik ateratakoak, hainbat urtetan lan munduan euskara planak garatzen jardun ostean ateratako ondorioak, esperientzian oinarritutakoak batik bat. Izan ere, gai honen inguruan oso gutxi aztertu da


2. EUSKARA PLANEN BILAKAERA ERDAL HIZTUNEN PARTE HARTZEAREN IKUSPEGITIK

Sarreran aipatutako euskara planetako dibertsitate horrek metodologia moldatu eta garatu beharra dakar. Txepetxen teoriari jarraituz, euskaldunak nagusi diren erakundeetan, erabileraren ontzia betetzeari eman zaio garrantzia, euskaldunak euskaldunen artean euskaraz hitz egiten jartzeak hartu du lehentasuna; hau da, euskaldunak jarri ditugu traktore lanetan. Euskaldunen portzentajea handia den erakundeetan euskaldunen arteko harremanak euskalduntzeari eman zaio lehentasuna, euskal hiztun pasiboak aktibatzeari, azken finean euskaldunek euskaren erabilerarekiko duten leialtasuna sendotzeari. Erakunde hauetako erdaldunei euskara ikasteko aukera eman zaie, baina ez da izan lan ildo nagusia.



1. irudia: Sanchez Carrión. Un futuro para nuestro pasado. 1987

Euskara planak Euskal herri osora zabaltzen joan diren heinean erdal hiztunak nagusi diren erakundeak ere ugartu egin dira. Enpresa horietan motibazioari, langileak sentibilizatzeari eman zaio lehentasuna, ezagutzarako jauzia ahalik eta azkarren emateko. Tipologia honetako enpresetan ere euskal hiztunak garrantzitsuak dira, baina euskara planaren ardura partekatu egiten dute erdaldunekin



2. irudia Sanchez Carrión. Un futuro para nuestro pasado. 1987

2.1. HIZKUNTZA KOMUNITATEA

Erakunde baten euskara normalizatzeko ahaleaginean hizkuntza komunitatea antolatzea behar beharrezkoa da. Normalean planak abian jartzen direnean hizkuntza komunitatea oso desegituratua azaltzen da, hau da erakundearen trakzio lana egiten duten guneeetan gaztelania erabiltzen da. Ondorengo irudian egituratu gabeko komunitate bat ikus dezakegu:



3. irudia


Euskara planaren arrakastarako eta lehenetasunak behar bezala zehazteko hizkuntza komunitatea egituratzea komeni zaigu. Euskaldun kopuruaren arabera bi eratarik egituratu dezakegu hizkuntza komunitatea:

- A) Euskaldun kopuru handia eta ezagutzaren arabera antolatuta
- B) Euskaldun kopuru txikia eta motibazioaren arabera antolatuta

2.1.1. Euskaldun kopurua handia

Kasu honetan komunitatea antolatzeko bi irizpide erabiltzen dira: ezagutza eta motibazioa, lehenengoari lehenetasuna emanda. Erdigunean edota nukleoan euskal hiztunak jarriz, ondorengo mailan euskara erabat menperatu ez arren duten aldeko jarreratik euskaraz gauzak egiteko prest daudenak, azkeneko mailan, berriz, euskaraz jakin ez eta jarrera indiferentea edota kontrakoa dutenak egongo lirateke.


Lortu beharrekoa erdigunea zabaltzen joan eta poliki-poliki beste mailak txikitzen edota desagertzen joatea da.



4. irudia

2.1.2. Erdaldun kopuru handia

Erdal hiztunak nagusi direnean komunitatea egituratzeko irizpide garrantzitsuena motibazioa izango da. Erdigunean euskara bultzatzearen alde daudenak eta euskal hiztunak kokatuko ditugu. Bigarren mailan jarrera borondatekoa dutenak eta euskaraz zertxobait egiteko gauza direnak. Hirugarrenean jarrera indiferentea erakusten dutenak. Azkenekoan, berriz, kontrako jarrera dutenak. Kasu horretan egin beharreko bideak bi norabide ditu: bata, erdigunea sendotzen eta handitzen joatea, hau da, motibazioan eragin; bestea, berriz, motibatuta daudenak euskalduntzea.



5. irudia

3. JARRERA MOTAK

Erakunde bat bere osotasunean hartzen badugu bi hizkuntza dituen komunitate bakarra da. Kolektiboaren barruan euskaraz dakitenen eta ez dakitenen artean horma bat zabaltzea arriskutsua izan daiteke. Izan ere, ez da ahaztu behar erakundearen helburu nagusienetako bat kolektiboaren kohesioa eta batasuna lortzea dela. Beraz, oso garbi izan behar dugu euskaldunak eta erdaldunak bi multzo ezberdinetan (adi.: bilera informatiboetan euskaldunentzat aparteko saioak egitea...) jartzea arriskutsua izan daitekeela. Bi taldeen interaktibitatea bilatu behar dugu, hori bai, elkartze horretan euskaldunen taldea sendoa eta indartsua izatea komeni zaigu, pixkanaka-pixkanaka erdaldun elebakarren taldetik jendea erakartzen joateko.

Euskara normalizatzeko erabilerara iristea ezinbestekoa da, erabilera planak dira, erabilera sustatzeko egiten direnak. Beraz, azken helburua garbi izanda euskaraz ez jakitea gainditu beharreko egoera bat da eta euskaraz ez dakitenei ahalegin handiagoa eskatuko die euskaraz badakitenei baino. Ikuspegi horretatik begiratuta suposatu dezakegu erdal hiztun elebakarren kopurua altua den erakundeetan euskara normalizatzearen aurkako jarrera askoz sendoagoa dela erdal hiztunen kopurua txikia denetan baino. Horrela bada, diseinu garaian erdaldun kopuru ezberdineko 5 enpresa ezberdinetan pasatu zen galdetegiaren emaitzak aztertuta, bi ondorio atera daitezke:

- 1.- Zenbat eta ingurune euskaldunagokoa eta erdaldun kopuru txikiagoa izan, orduan eta gutxiago dira kontrako jarrerak
- 2.- Zonalde euskaldunetan ere bada euskara plana gaizki ikusten duen norbait, kontrako jarreraren bat

	ELECTRA	MAPSA	RECYDE	COPRECI	ARRASATE
ERDALDUN KOPURUA	80,5	% 78,5	%50,5	39,5	18,5
Denbora eta dirua alferrik galtzea da	%5	%9	%6	%0,9	% 0,4
Ez dit axola, ez da nire arazoa	%7	%4	%3	%2,6	% 0,4
Ondo, beti ere, pixkanaka eta oso kontuz egiten bada.	%32	%29	%28	%18,4	% 17
Ondo iruditzen zait.	%47	%53	%47	%58,6	% 52,8
Oso beharrezkoa da.	%9	%5	%15	%17,5	% 18,4

6. irudia

Iturria: enpresa hauetako diseinu txostenak

Zalantza barik euskaraz ez jakiteak eskatzen duen ahaleginak erreparatu gehiago sortzen ditu eta normalizazioaren kontra daudenak gehiago izango dira erdaldunen artean euskaldunen artean baino. Ezberdintasuna kopuruan aurkituko dugu, kontrako diskurtsoa euskaldunen, zein erdaldunen artean aurkituko baitugu. Dena den **erdalduna = kontrako jarrera** ekuazioarekin erabat apurtu behar dugu, erdaldun gehienak ez direlako jarrera horren jabe, erdaldunen artean ere badira (gehienak??) euskara normalizatzearen alde daudenak eta beraietako batzuk eragileak dira euskara planetan

Emunen azken urte hauetan enpresetako euskara planetan izandako esperientzian ikusi ditudan jarrerak 4 multzotan sailkatuko nituzke:

- Euskararen normalizazioaren kontra azaltzen direnak
- Ez alde eta ez kontra ez daudenak, jarrera indiferentea erakusten dutenak
- Aldeko azaltzen direnak, parte hartzeko borondatea/intentzioa adierazten dutenak.
- Euskara planean parte hartzen dutenak eragile bihurtuz

Ikus ditzagun jarraian multzo bakoitzeko kideen ezaugarriak:

3.1.1. KONTRAKOAK

EUSKALDUNAK	<p>Euskaraz badakite baina ez dira euskaldun osoak. Euskara elementu zatitzaile modura ikusten dute eta errentagarritasunari kalte egin diezaiokeela adierazten dute.</p> <p>Euskarak enpresa barruko hainbat funtzio ezin dituela bete uste dute.</p>
ERDALDUNAK	<p>Euskaraz ez dakite eta euskara planen aurka daude. Mehatxuak baino, ideologikoki erasotuak sentitzen dira</p>

3.1.2. INDIFERENTEAK

EUSKALDUNAK	<p>Diskurtso horren ekoizleek egoera dagoen horretan onartzen dute, ez dute aldaketa beharrik sentitzen. Euskara erabiltzea norberaren aukera dela diote eta euskara arazo sortzaile dela ere bai. Arazorik edo lanik ez dute nahi, bestearekiko –erdal hitzunarekiko errespetua aldarrikatzen dute eta euskara/gaztelania kategoria desberdinetan sailkatuta ikusten dute.</p>
ERDALDUNAK	<p>Euskaraz ez dakite, euskara ikasteko inongo ahaleginik egiteko prest ez daude, baina planaren aurka ez daude. Hala ere, planean ez dute parte hartzen</p>

3.1.3. BORONDATETSUAK

EUSKALDUNAK	Euskara euren identitatearen oinarria dela diote eta euren burua euskalduntzat dute. Gizartearen dimentsioa azpimarratzen dute eta euskara ama hizkuntza dela. Esfortzua egitea euskararekin lotzen dute eta horretarako prest daude neurri batean. Euskara enpresan erabiltzeko gogoia dute eta euskara erabiltzeko plangintzaren beharra eta enpresa planean txertatuta egon behar dela aipatzen dute. Euskara ez erabiltzearen errua besteei dela diote.
ERDALDUNAK	Euskaraz ez dakite, euskara ikasteko ahaleginak egin dituzte noizbait, eta ez dute baztertzeko berriro ere egunen batean euskara ikastea. Planaren alde daude eta parte hartzeko prest daude

3.1.4. ERAGILEAK

EUSKALDUNAK	Euskara gure hizkuntza , gure eskubidea eta altxor unibertsala dela esaten dute. Nortasun sentimendua, euskaldun izatea, maitasun sentimendua euskararekin lotzen dute. Inplikazio handia duten pertsonak dira, ardura eta konpromisoa euren ezaugarriak dira eta euskara erabiltzeko esfortzua eta lana egin behar dela onartzen dute. Euskaraz eroso daude, euskara beharrezkoa dela ikusten dute. Belaunaldi berriak kontuan hartzen dituzte, haiei bidea zabaltzeko behar zaiela diote. Euren burua euskaraz hitz egitera behartuta ikusten dute eta oraingoz gaztelaniak dituen aukera berak aldarrikatzen dituzte euskararentzat.
ERDALDUNAK	Euskara ikasten ari diren erdaldunak edota planaren alde egon, eta planean parte hartzen dutenak. Lantegian betetzen duten lanpostuagatik beraien iritzia oso garrantzitsua da.

4. EUSKARA NORMALIZATZEAREN AURKAKO DISKURTSOAK

Jarraian enpresetan euskara normalizatzearen kontrako jarrera dutenek erabili ohi dituzten diskurtso batzuk eta horien eragina neutralizatzeko euskara planetako eragileek erabilitako argumentuak aztertuko ditugu (Emun 2005). Izan ere, kontrako diskurtso hauei buelta eman eta normalizazioaren aldeko diskurtsoa zabaltzea da euskara planen eginkizunetako bat, askotan kontrako diskurtso hauen atzean norberaren beldurrak, aurreiritziak, gaitasun ezak ... ezkututzen dira.. Diskurtso edota argudio sorta hau gaika antolatuta dago:

4.1. EKONOMIA

Enpresan euskara normalizatzeko behar den dirua gastutzat hartzen dute, inoiz ez inbertsiontzat. Dirua alferrik xahutzea dela diote, euren lehentasunetan ez da sartzen enpresako harremanetan euskararen erabilera normalizatzea, euskal hiztunek euskara erabiltzeko duten eskubidea ez dute aintzat hartzen. Gaztelaniaz denok dakigu, beraz egin dezagun gaztelaniaz da euren leloa-

Jarrera hau dutenen aurrean euskaldun eragileek eta batez ere euskara planean zuzenean lanean dihardutenek planak enpresarentzat duen kostu ekonomikoa, finantziario bideak zeintzuk diren, eta, batez ere, euskara sustatzeak enpresari eta enpresako kideei zer onura ekar diezazkiekeen garbi izan behar dute. Alor honetan ere beste askotan bezalaxe, irtenbiderik egokiena aurrea hartzea da, hau da, kontrako argumentu hauek azalerratu baino lehenago informazio zuzena eta argia zabaltzea. Euskara normalizatzearen aldeko diskurtsoa ere hasiera hasieratik landu behar da.

Ikus ditzagun alor honetan entzuten diren argumentu batzuk eta horiei aurre egiteko erabiltzen direnak

EUSKARA PLANIK NAHI EZ: KONTRAKO ARGUDIOAK

- Alferrikako lanik ez: Euskara erabiltzen ez denez, ez du zentzurik enpresa mailako esfortzurik egitea bere erabilera areagotzeko
- Enpresara produzitzera etortzen gara, euskarak ez du jaten ematen
- Euskara erabili nahi dutenek erabili dezatela euren artean.
- Hemen denok dakigu gaztelaniaz, ez daukagu komunikatzeko arazorik , euskaraz ez dakigunoi euskaraz ikasteko eskatzea eta horretan dirua gastatzeak ez dauka zentzurik
- Bi hizkuntzatan (edo euskaraz) lan egiteak lan plus bat dakar
- El que quiera aprender, me parece bien, pero fuera de horas de trabajo. El euskera no debe valorar en la promoción de puestos de trabajo. .

NORMALIZAZIOAREN ALDEKO DISKURTSOA LANTZEKO ARGUDIOAK

- Barruko merkatuan bezeroei eusteko balio du euskarak.
- Onurak ekarriko dizkio organizazioari (kulturarekiko begirunea, ekoizkinen balioa areagotu, bezeroenganako zerbitzua hobetzeko lagungarri...)
- Gazte jendea gero eta prestatuago dago euskaraz lana egiteko, eta ikasketak euskaraz egiten dituzte gazte gehienek.
- Gaur egun, etekin ekonomikoaz gain, erakundeek gizartean duten eragina gero eta gehiago hartzen dute kontuan.
- Langileak enpresarena den erabilera plan batean lanean ari badira, talde lanean ari dira eta horrek barne kohesioa eta lan giroa hobetuko ditu
- Euskara Plana inplementatzeagatik diru-laguntzak jasotzen dira, eta horrek asko laguntzen du planen finantziazioan.
- Kalitatea eta balio erantsia: Euskara balio erantsia da enpresan. Euskarazko zerbitzua eta produktuak eskaintzen dituzten enpresak kalitate handiagoa eskaintzen ari dira. Bere zerbitzu eta produktuek balio erantsia dute eta horrek, lehiakideen aurrean abantailan jartzen ditu.

4.2. DENBORA

Sarritan arrazoi ekonomikoekin batera azaltzen dira. Denboraren argumentua erabiltzen dutenak normalean euskara normalizatzeko erantzukizuna ondorengo belaunaldiarena dela uste dute. Zertarako fortzatu makina, berez lortuko da eta. Beraien iritziz itxarotea da kontua, belaunaldi berriak euskaraz datozenek beraiekin batera normalizatuko da euskararen erabilera. Diskurtso mota hau dutenek euskara osasuntsu ikusten dute, azken urteetan asko aurreratu dela uste dute eta arrazoi ezberdinegatik ez dute beraien burua euskara normalizatzeko planaren barruan ikusten. Argumentu hau erabiltzen badute ere, asko ez dute begi onez ikusten langile berriak kontratatzerakoan euskara jakitea eskatzea

EUSKARA PLANIK NAHI EZ: KONTRAKO ARGUDIOAK

- Hizkuntza berreskuratzeko eta indarberritzeko prozesuak oso motelak dira
- Etorriko da berez. Gazteak euskaraz datoz eta egingo dute beraiek

NORMALIZAZIOAREN ALDEKO DISKURTSOA LANTZEKO ARGUDIOAK

- Eraitza kuantitatiboak (ekonomikoak) epe ertain eta luzera lortzen dira. Baina, eraitza kualitatiboak epe motzera lortzen dira: enpresaren irudia hobetu egiten da kanpora begira (gestio berritzailea duen enpresa, etorkizunera begirako enpresa, gizarte hobe baten aldeko enpresa), elementu berri bat sartzen da langileen jardunean eta horrek lana gusturago egiten laguntzen du, barne komunikazioa hobetzen da, eta langileen kohesioa gertatzen da.
- Langile berria enpresan lanean hasten denean, dagoen egoerara moldatzen da, eta ez du aldaketarik sorrarazten. Beraz, hezkuntza euskalduntzeko egindako lanak jarraipena izan dezan, lan munduan euskaraz lan egiteko oinarriak ezarri behar ditu enpresak.

- Euskara normalizatzeko planak: helburuak eta baliabideak kontrolatu behar diren edozein gaik planifikazioa behar du, ezin da ezer inprobisatua izan. Planifikazioaren beharra geroz eta nabarmenagoa da.

4.3. GLOBALIZAZIOA

Azken urte hauetan globalizazioa dela eta enpresak mundu guztian zehar zabaldu direla eta asko dira panorama berri horretan euskararen balioa zalantzan jartzen dutenak. Oro har, pertsona hauek ingelesaren aldeko apustua egiten dute eta baliabide guztiak ingelesa ikasten jarri behar direla uste dute, arlo ekonomikoarekin oso lotutako argumentuak erabiltzen dituzte. Lehentxeago edo beranduxeago euskara desagertu egingo da

EUSKARA PLANIK NAHI EZ: KONTRAKO ARGUDIOAK

- Zertarako euskara. Etorkizunean ingelesa bakarrik izango da interesgarria
- Ezagutzaren gizartea bultzatzeko herri hizkuntzak baztertu eta zubi hizkuntzen erabilera sustatu behar da.
- Progresoaren aurkakoa da eleaniztasuna
- Hizkuntza aniztasuna txarra da

NORMALIZAZIOAREN ALDEKO DISKURTSOA LANTZEKO ARGUDIOAK

- Zehaztutako azken hizkuntza politikak hizkuntza aniztasunaren politikak dira: hau da, hizkuntzaren ikuspegia zabala da mundu mailan, eta gero eta hizkuntza gehiagorekin gaude harremanetan. Euskara ere munduko aberastasun

kulturalaren parte da, eta euskararen aldeko neurriak hartzen baditugu, munduko aberastasunaren aldeko neurriak hartzen ari gara.

- Komunitatea eta Harmonizazioa: Enpresa lekuan lekuari egokitzea. Gizarte osoaren integrazio-ahalmena aberastea. Gizartean euskarak duen estimua enpresa mailan kontuan hartzea enpresarentzat mesedegarri. Jarduera sozioekonomikoa gizarte jakin batean kokatuta dago eta halabeharrez, gizarte horretako norbanakoen kezka eta nahiak bertan islatzen dira. Enpresen erronka: euskal gizartearen dinamika horretan partaide eta eragile izatea.
- Egungo erronkei aurre egiteak pertsonetikiko eta enpresak bere jarduera burutzen duen ingurunearen eskariekiko sentikortasun handiagoan oinarritutako kultura sendotzea eskatzen du. Enpresan gertatzen dena gizartearen isla da (Euskal enpresak erronka askori egin behar dio aurre ingurune gero eta globalizatuan /.../ Desafio horiek arrakastaz gainditzeak ez du egokitze gaitasun handia bakarrik eskatzen, baita malgutasunean, parte hartzean eta pertsonetikiko eta enpresak bere jarduera burutzen duen ingurunearen eskariekiko sentikortasun handiagoan oinarritutako kultura sendotzea ere bai).
- Multinazionalei bertakotasun zantzua ematen die
- Ustekabeko elementua sartzen duelako, hau da, eremu urriko hizkuntza erabiltzeak atentzioa ematen duelako.
- Enpresari aukera ematen dio inguruan duen gizartean hobeto txertatzeko.
- Euskarak sustraitze eta identitate arazoei aurre egiten lagunduko du globalizazio garai hauetan.
- Hizkuntzen dimentsio naturala "lokalitatea" da
- Hizkuntzalari gehienek diote pertsona elebidunek gaitasun kognitibo handiagoa dutela elebakarren aldean.
- Elebitasunak bezero berriak erakartzen ditu. Lehiakideekiko abantaila sortzen du
- Barruko merkatuan bezeroei eusteko balio du euskarak.

- Bezeroa /erabiltzailea euskalduna izanez produktua/zerbitzua euskaraz eskaintzeak merkatu-hutsunea bete dezake. Lehiakideen aurretik joatea ekar dezake. Eukal Herrian bezeroak dituztenentzako argudio indartsua gerta daiteke. Bezero euskaldunekiko hurbiltasuna.
- Eleaniztasun galera aberastasun kulturalaren galera da. Ez dakigu zer galtzen ari garen hizkuntza bat suntsitzen denean. Hizkuntzan kodetutako kultura oso bat, bere munduari buruzko ikuspegia, bere literatura eta abar desagertzen zaizkigu, eta gure mundua neurri horretan pobretu egiten da. Ingurugiroa zaintzeko ahaleginak egiten diren bezala, hizkuntzek dituzten aberastasunak bizirik gordetzeko ahaleginak berdintsu justifika daitezke, are gehiago norberak erabiltzen duen hizkuntza denean.
- Etiketaian bertako hizkuntza azaltzea, beti kontsumoa laguntzen duen ezaugarria da. Okerra da esatea katalaneraz ere etiketatzeak kaltea dakarrela enpresa ekoizleentzako. Enpresek egunean egon nahi badute eta honetara behartzen duen lege bat baldin badago, berehala hasi beharko dira eleaniztetan etiketatzen. Eleaniztasunaren abantaila. Stokajea geratzen bada produktua, herrialde bat baino gehiagotan sal daiteke

4.4. PRESTIGIOA: HIZKUNTZAREN BALIO EZA

Kontrako diskurtsoen artean badira hizkuntza guztiei balio bera ematen ez diotenak. Zenbait funtzio betetzeko euskarak ez omen du balio. Argumentu hau erabiltzen dutenek euskara ez dela hizkuntza modernoa uste dute, gaur egungo funtzioetara egokitu ez den hizkuntza da euskara. Normalean hizkuntzen inguruko formazio soziolinguistiko oso eskasa dutenak dira diskurtso honen jabe. Diskurtso hauen aurrean hizkuntzen ekologia, berdintasunaren printzipioa edota hizkuntz baten galera eta berreskuratzearen inguruko teoriak erabil daitezke

EUSKARA PLANIK NAHI EZ: KONTRAKO ARGUDIOAK

- El vascuence nos parece muy apropiado para un mitin de Herri Batasuna, (...) para anunciar una partida de frontón en Anoeta (...). Pero hay funciones del alma y del espíritu que no podemos imaginar que puedan realizarse en vascuence. Por ejemplo el amor (...) Antonio Burgos, 1986
- Gure herrian zaharrek bakarrik egiten dute euskaraz
- Euskara herri xehearen hizkuntza da, baserritarrena
- Hizkuntzen kategoria ezberdina: euskara umeekin eta txakurrekin erabiltzen da eta gaztelania helduekin.
- Laneko gaiez ezin dugu euskaraz egin, ez dugu mailarik
- Zenbait alorretan oraindik terminologia hutsune handiak daude euskaraz, eta horrek zailtasunak sortzen ditu enpresaren funtzionamenduan
- Euskara teknikoa finkatu gabe
- Euskara ez da gai teknikoetan erabiltzen, ez dago horrenbeste landua

NORMALIZAZIOAREN ALDEKO DISKURTSOA LANTZEKO ARGUDIOAK

- Euskarak espazio ugari irabazi ditu, eta gaur egun badira euskaraz funtzionatzen duten enpresak, ikerketa zentroak...Euskal literaturaren produkzioa izugarri handitu da, gero eta gehiago kontsumitzen da euskarazko literatura eta euskarazko komunikabideak. Euskararen corpusa izugarri handitu da, eta euskara erabili dezakegu edozein gairi buruz ari garela ere.
- Euskarari eutsi nahi soilarekin sekulako kontribuzioa egiten ari gara kultura unibertsalari. Europak bere ezaugarri aberatsenetako bati, mosaikozko izaerari, eutsiko badio, euskaldunak behar gaitu.
- Euskarak bizimodu ezberdin ugari integratzen ditu bere baitan, aldaketetara moldatu da bere historia luzean, eta merkatu globalizatuan salbuespen kulturalaren aldeko hautua
- Euskalkietatik abiatuta euskara batua arautu eta garatu da, eta hori da euskaldunon erreferentzia. Dena den, euskalki ezberdina erabiltzen dutenen artean ez dago inolako arazorik elkar ulertzeko eta elkarrekin komunikatzeko.
- Euskararen balorazio sozialak gorantz egin du: elebidun izateak onarpen soziala eta balio komertziala du
- Euskara erabiltzeak balio erantsia du: baldintza beretan gehiago eskaintzen da eta enpresako prestigioan eragina du. Bezeroak hobeto zerbitzatzeko aukera ematen du. Horiek guztiak bete-betean datoz bat gaur egun Erabateko Kalitatearen edo Bikaintasunaren kudeaketa estrategian aldarrikatzen diren helburuekin
- Gazte gehienek euskaraz egiten dituzte ikasketak, eta euskararenganako atxikimendua dutela adierazi dute gazte askok. Belaunaldi berrietako portzentaje handi bat euskaraz lan egiteko motibatuta dago.
- Egiten ez duzun bitartean, ez duzu mailarik izango. Euskara erabiltzen eta lantzen duzun neurrian, maila lortuko duzu.

- Gero eta euskaldun gehiago, eta gero eta trebatuagoak euskaraz lan egiteko.
- Langile gazteak euskara idatzian eta teknikoan gero eta trebatuago; gero eta hiztun gehiago. Euskararen aldeko “masa kritikoa”, teorian, gero eta handiagoa. (Ezag.Klust.)
- Hizkuntza guztiak dira gai pentsamendu orokorrak eta zientzia edo teknika aurreratuenen terminologia barneratzeko
- MIQUEL SIGUAN: Hizkuntza guztiak dira gai mundu globalizatuaren errealitatea adierazteko (zientzia eta teknikaren mundua, baldintza sozial eta politiko konkretu batzuen ikusmoldea). Adibidez katalana eta euskara hizkuntza kodifikatu eta modernizatu da. Telefono mugikorren hizkuntza, birusak, galaxiak, merkataritzako kontratuak... hizkuntza hauek guztiz barneratzen dituzte. Honetarako zailtasun handiagoak dituzte ahozko hizkuntzek, idatzizko hizkuntza baten kodifikatze lanak egin gabe daudelako. Hizkuntza politika egoki batekin, kodifikatutako hizkuntzak aurrera egitea posible da.
- LAURA SANTAMARIA: Hizkuntza eskubideak bermatuta izateak esan nahi du, gure ordenagailura gerturatu eta ordenagailua gure hizkuntzan gureganatzeko aukera. Informatika enpresek, itzultzeko errazak diren produktuak sortu beharko lituzke. Hizkuntza baten presentzia mundiala, eta ondorioz, digitala, hizkuntza horretan sortuko diren web gune, atari eta itzultzeko errazak diren programa informatikoen existentzian oinarrituko da

4.5. INPOSAKETA

Beste diskurtso batek inposaketaz hitz egiten du, euskarari ez diote benetako estatusik onartzen. Izan ere hauen ustez euskara ikasi edo erabili nahi ez duenari ezin zaio eskatu. Kontratazioetan euskara jakitea eskatzea izugarrikeria bat iruditzen zaie. Herri honetan denok dakigu hizkuntza bat, gaztelania, eta gutxi batzuk dakite euskaraz. Beraz, komunikazio orokorretan eta erdaldunak parte hartzen duten foroetan logikoena gaztelania erabiltzea da.

EUSKARA PLANIK NAHI EZ: KONTRAKO ARGUDIOAK

- Estatu Espainolean hizkuntza minoritarioak baztertzeko eta diskriminatzeko erabili dira, elkartrukerako eta komunikaziorako erabili beharrean (Irene Lozano Lenguas en guerra).
- Lo primero es no imponer nada ni obligar a nadie, y no darle tanta importancia, hay cosas más prioritarias que deben resolverse
- El que quiera aprender, me parece bien, pero fuera de horas de trabajo. El euskera no debe valorar en la promoción de puestos de trabajo. Es discriminatorio y en la mayoría de los casos no necesario para desempeñar el puesto de trabajo.
- Euskara ez dakien bat badago, gaztelaniaz egin behar da.
- Hitzaldi batean euskara ez dakien bat badago, gaztelaniaz egin behar da errespetuz. Edukazio txarrekoa da ulertzen ez duen hizkuntza batean jardutea pertsona bati.
- Euskararen aldeko neurriak hartzeak gaztelania diskriminatzea dakar

NORMALIZAZIOAREN ALDEKO DISKURTSOA LANTZEKO ARGUDIOAK

- Euskara indartzeak ez dakar beste hizkuntzak diskriminatzea. Faktore gehiketa da eta ez kenketa. Merkatu globalizatuan salbuespen kulturalaren aldeko hautua. Europaren eredu mosaikodunaren alde egiteko modua da.
- Hizkuntza dugu gure munduaren neurria. Gure lehen eremu kultural librea, hizkuntzari eutsi nahi soilarekin kontribuzio sekulakoa egiten ari gara kultura unibertsalari.
- Euskaldunok euskaraz egiteko eskubidea daukagu gure lurraldean, eta eskubide hori gauzatzeko neurri batzuk hartu behar dira: ezagutza handitu behar da, zenbait lanpostutan euskal hiztunak jardun behar dute...Gainontzean, ez dira hizkuntza eskubideak betetzen. Euskararen aldeko diskriminazio positiboa beharrezkoagoa da hizkuntzen berdintasuna lortzeko bidean.
- Euskaldunari euskaraz aritzeko eskubidea eta aukera bermatzea. Erdaldunari euskalduntzeko eta euskal gizartean integratzeko eskubidea eta aukera eskaintzea.
- Euskal hiztunari: euskaldun asko hobeto komunikatzen dira euskaraz; izan ere, euskaldun bati euskaraz mintzatzen bagatzaizkio, eman beharreko mezua emateaz gain, berarekiko errespetua eta gertutasuna adierazten dizkiogu. Euskaldun asko ere hobeto komunikatzen dira euskaraz ari direnean. Oro har, enpresako komunikazioa hobetu eta biziagotuko da. Hitzaldi informatiboetan eman beharreko mezua emateaz gain, baloreak komunikatzen dira. partaidetza, ingurumenarekiko errespetua...Mezua bezain garrantzitsua da transmititzen diren emozioa eta baloreak.
- Euskara munduko aberastasun kulturalaren parte da, eta euskararen aldeko neurriak hartzen baditugu, munduko aberastasunaren aldeko neurriak hartzen ari gara
- Euskara enpresaren esparru gehiagotan erabiltzeak ez dakar galerarik beste hizkuntzentzat, ezta euskal hiztunak ez direnentzat ere. Faktoreen batura dakar euskara gehiago egiteak, ez faktoreen kenketa.

4.6. ZAILTASUNA

Hizkuntzaren zailtasun maila da euskara ez ikasteko erabiltzen den beste argumentuetako bat. Normalean argumentu hau erabiltzen dutenek Euskal Herrian urte asko eramanda ere, oso hartu-eman txikia euskal komunitatearekin. Zenbaitzuk euskara ikasten hasi eta porrot egindakoak dira.

EUSKARA PLANIK NAHI EZ: KONTRAKO ARGUDIOAK

- Hizkuntza zailak, konplexuak...
- Euskara oso ezberdina da beste hizkuntzekiko
- Bigarren hizkuntza irakatsi eta ikasi egiten da; baina, ez da erabiltzen
- Hizkuntza batzuk irakasteko ez dago hizkuntza ondo menperatzen duen irakaslerik

NORMALIZAZIOAREN ALDEKO DISKURTSOA LANTZEKO ARGUDIOAK

- Hizkuntzak ez dira ez zailak ez errazak. Bata bestearengandik ezberdinak izan daitezke, eta batetik bestera ezberdintasun handiak badaude, ezagutzen ez duguna zaila dela esaten dugu; baina, benetan esaten ari garena da ezagutzen dugun hizkuntza eta bestea oso ezberdinak direla.
- Ikasten dena erabiltzen ez bada, ahaztu egiten da.
- Euskarak espazio ugari irabazi ditu, eta gaur egun badira euskaraz funtzionatzen duten enpresak, ikerketa zentroak...Euskal literaturaren produkzioa izugarri handitu da, gero eta gehiago kontsumitzen da euskarazko literatura eta euskarazko komunikabideak. Euskararen corpusa izugarri handitu da, eta euskara erabili dezakegu edozein gairi buruz ari garela ere.

4.7. POLITIZAZIOA

Euskara sustatzea zenbaiten, alderdi abertzaleen helburu politikoekin lotzen dute eta gizartea zatitzeko arriskua ikusten dute

EUSKARA PLANIK NAHI EZ: KONTRAKO ARGUDIOAK

- Espainiako zenbait bezeroren aurrean euskararen erabilerak jarrera negatiboa sor dezake
- Alderdi abertzaleen helburua da. Jendea politikoki markatzeko erabiltzen da
- Euskararen politizazioa/ideologizazioa: bezero horiek uste dute euskara erabiltzeak haiek biziki gaitzesten dituzten jokabide politikoekin edota are gehiago, indarkeriaren erabilerarekin duela zerikusirik.

NORMALIZAZIOAREN ALDEKO DISKURTSOA LANTZEKO ARGUDIOAK

- Hizkuntzen berreskurapena berdintasunaren printzipioan oinarritzen da: hizkuntza guztiek dute garatzeko eskubide bera, bizitzeko eskubide bera. Hizkuntzen arteko berdintasuna mantendu egin behar da, eta berdintasunik ez dagoen kasuetan, berdintasuna sortu.
- Arazo hori ez da, oro har, Espainiaz kanpoko bezeroekin gertatzen. Zenbaitetan atzerritarren erreakzioak positiboak dira. Horietako batzuek beren herrialdeetan antzerako egoera bizi dute.
- Euskara erabiltzeak ez du esan nahi ezinbestean bezeroak gaitzesten dituen jokabideak bultzatu nahi direnik: esan nahi du enpresak bere inguruan bizi den euskara balioesten duela, beste hizkuntzak eta beste jokabideak errespetatzen dituen bezala.
- Esperientziak erakutsi digu enpresa barneko lan giroa hobetu egiten dela, balore ekonomikoez gain, enpresak beste balore batzuk ere badituela ikusten

delako. Erdal hiztunak euskarara hurbiltzen dira. Euskara planak faktoreen gehitzea ekartzen du, ez kenketa.

4.8. BARNE KOHESIOA - LAN HARREMANAK

Enpresan euskararen erabilera sustatzeak langileen arteko giroa eskastea ekar lezakeela uste dute

EUSKARA PLANIK NAHI EZ: KONTRAKO ARGUDIOAK

- Barne-erresistentziak: enpresa barruko erdaldunekin giroa gaiztotzeko/nahasteko arriskua. Lan giroan eta bezeroen harremanetan arazoak sor ditzake.
- Langileek badituzte lehentasun handiagokoak diren behar eta eskakizunak

NORMALIZAZIOAREN ALDEKO DISKURTSOA LANTZEKO ARGUDIOAK

- Langileen lan-harremanak: Hizkuntzaren funtzioa da enpresa lekuan lekuari egokitzea, partaideen komunikazioa eta harremanak errazago bihurtuz. Lan harremanak gizatarrago egin eta ondorioz produktibitatea sustatzea.
- Langileen kohesioa eta identifikazioa: Enpresa, organizazio den aldetik, bere partaide diren gizabanakoen kezkek eta gogoak jaso eta erantzuna ematen dien neurrian, enpresarekin identifikazio handiagoa lortuko dute. Langileen asmoak enpresaren eginkizunetan txertatzea onuragarria da (gizabanakoen kezkek kontutan dituen enpresekin, errazago egiten dute lan langileek). Lantoki horretan konpaktazio soziala areagotuko litzateke. Ondorioz, euskara-planak lanerako motibazio-tresna bihur daitezke.
- Langileen lan-harremanak: Euskara tresna eraginkorra da langileak eta ingurunea gogobetetzeko komunikazioan (euskaldunengana hurbiltzeko euskara erabiltzea oso tresna eraginkorra da, komunikazioa erraztu egiten baitu). Euskara planak beste komunikazio aukera bat zabaltzen du, barne harremanetan, bezeroekin eta hornitzaileekin. Aukerak zabaltzea esan nahi du.

- Langileen kohesioa eta identifikazioa: Langileak gogobetetzeko eta motibatzeke ere eraginkorra da euskara erabiltzea enpresan eguneroko eta ohiko harremanetan, zuzendaritza-taldeko pertsonak eta langileak elkarrengana hurbildu egiten baitu. Langileen integrazioa Lantegi Proiektuan. Langileek enpresarekiko duten identifikazio-maila handitu.
- Langileen. kohesioa eta identifikazioa: Euskara kohesio sozialerako faktore inportantea ere bada
- Langileen Kohesioa eta Identifikazioa: Langileen motibazio-iturri osagarria. Kooperatibak indartsu direneko eskualdeetan, euskararen aldeko motibazioa bereziki bizia da. Honek guztiak euskara lanerako motibazio-iturri bihurtzen du. Aukera hori langileentzat zabaltzea, aukera da enpresarentzat
- Azken finean, euskarak enpresari kohesioa topatzen lagunduko lioke.
- Balio erantsidun eta kalitatezko zerbitzua eskaintzeko: langilea baita enpresako funtsezko aktiboa. Erakundearekiko langilearen erantzukizuna/motibazioa errotu behar da; giza taldeak sustatu.
- Epe luzerako onurak (errentagarritasuna): produktu eta zerbitzuei balio erantsia eman diezaieke, eta erakundearekiko identifikazioa eta atxikimendua sendotu dezake, eta langileen motibazioa, inplikazioa eta barne-kohesioa gehitu eta hobetu. Erakundearen barne-kultura aberasten du.
- Euskara Plana martxan jartzen duen enpresak ezberdintasunekiko errespetua adierazten du, hizkuntza guztien bizitzeko eskubidea, hizkuntza guztiak garatzeko eskubidea...Balore demokratikoak dira.
- Enpresarekiko identifikazioa indartzea

5. EUSKARA IKASTEKO/ERABILTZEKO PROZESUA

Aurreko atalean enpresa edota erakunde batean aurki ditzakegun kontrako argumentuak eta berdintasunaren diskurtsoa erabilia horiei aurre egiteko zer arrazoi erabil ditzakegu aztertu dugu. Diagnostiko horretatik abiatuta azter ditzagun orain euskalduntze prozesuaren nondik norakoak

5.1. EUSKALDUNTZE PROZESUA

Euskalduntze prozesua oso luzea dela ez dago zalantzarik eta prozesu luze horretan hainbat fase eta barne egoera gainditu behar izaten dira.

Prozesuaren abiapuntua NAHI IZATEAN kokatzen dugu, baina garbi dago puntu horretara iritsi aurretik ere lan handia egin behar dela langile erdaldunak motibatzen euskal komunitatera hurbildu eta euskara ikasteko grina edota beharra sentitu dezaten.

Euskara ikastearen aldeko jarrera erakutsi ostean, portaerara jauzi egitea lortu behar dugu, euskara IKASTEN HASTEAN lortu behar dugu, alegia. Bagoaz aurrera pixkanaka-pixkanaka, lortu dena ez da gutxi, baina oraindik lan handia dugu motibazioa lantzen.

Hurrengo urratsa, ikasten jarraitzea lortzea da, ekindako BIDEARI EUSTEA. Sarritan faserik zailena izaten da, benetako motibaziorik ez dagoenean, ohikoa izaten da fase honetan prozesua etetea.

Azkenik, euskara ikasten doan heinean euskal hiztunen komunitatean integratzen joan behar du, euskal hiztunekin euskara ERABILTZEN HASI behar du. Horretarako, lankide euskaldunekin zituen hizkuntza ohiturak aldatzen joan behar da, komunikazio sare berriak sortzen, poliki-poliki euskararen ERABILERA NORMALIZATZEA lortu arte.

Ikusi dugun moduan bide luzea eta ahalegin handia eskatzen duena. Beraz, prozesua arrakastaz gauzatu dadin denbora zehar eta fase ezberdinetan motibazioari eustea lortu behar dugu.

Iñaki Martínez de Lunak (2003) euskalduntzearen baitan bi prozesu daudela adierazten du:

- Ikas prozesua
- Gizarte prozesua

“Ikas prozesua: euskaltegian nahiz bestelako bideren batez (multimediak, besteak beste) hizkuntz edukiez jabetzea da eta horiek erabiltzeko arauz menperatzea.

Gizarte prozesua: hizkuntza gizarte-osagarri bat delako agertzen da eta prozesu hau, nahitaez, gizartean burutzen da, hizkuntz komunitateko hiztunekin harremanetan aritzean; beste hitzetan, hizkuntza erabiltzean. Hizkuntza ez da komunikaziorako tresna hutsa, ezta neutroa ere: bere hiztun-taldearen isla da eta harremanetan eragiten du ere.

Gauzak horrela, gizakia euskalduntzeko ikas prozesuarekin batera beharrezkoa litzateke ere gizarte prozesua osatzea, eta bigarren prozesu horrek hainbat aldaketa lekarkioke euskalduntze ahaleginetan dabilenari: euskarazko harremanak ez lirateke erdarazko berberak izango, ezta berdinak ere. Aldaketa horiek gertatu ezean, baliteke ikas prozesua gizabanakoa zinez euskalduntzeko nahikoa ez izatea.”



7. irudia

Iturria: JAKIN 128. Zenb. 135. orrialdea

Ikusi dugun moduan bide luzea eta ahalegin handia eskatzen duena. Beraz, euskalduntze prozesua arrakastaz gauzatu dadin denboran zehar eta fase ezberdinetan motibazioari eustea lortu behar dugu.

5.2. MOTIBAZIO ESTRATEGIAK

Denboraz hainbeste luzatzen den prozesu bati eusteko motibazio estrategia argiak behar dira. Gure kasuan enpresa bateko langile erdaldunak euskararen alorrean urratsak eman ditzaten motibatu nahi ditugu. Pertsona horien motibazioan faktore askok dute eragina:

- Faktore pertsonalak: Norberaren egoera: hizkuntza ikasteko gaitasuna, denbora, egoera emozionala..
- Faktore sozialak: euskal hiztunekiko hurbiltasuna, euskal kulturaren ezagutza maila.
- Prozesu guztian erabilitako metodologia eta bitartekoak
- Soziolinguistikan duen prestakuntza.
- ...

Kellerrek ikastera sustatzeko ARCS (Attention, Relevance, Confidence, Satisfaction) eredua proposatu zuen (Keller, 1987). Honen arabera, jokabide motibatua izateko lau baldintza bete behar dira:

- Atentzioa : egiten den horrek ikaslearen atentzioa piztu eta mantendu behar du. Horretarako ekintzen antolaketan parte hartze zuzen a bultzatu behar da, sortzaile izaera sustatuz eta autonomiarako bideak zabalduz.
- Garrantzia: egiten ari den hori baliagarria izan behar zaio. Baliagarritasuna edukiak ez ezik lantzeko moduak ere eman diezaioke
- Konfiantza: lortutakoaren arrakasta ikaslearen ahaleginari eta gaitasunari egotzi behar zaio, inoiz ez gaiaren erraztasunari. Jarritako helburuak lor ditzakeela ikusi behar du.
- Asebetetasuna: ikasleak zerbait lortu behar du bere ahaleginaren ordainetan.

5.3. MOTIBAZIO MOTAK

Josu Peralesek “Euskara helduaroan ikasteko motibazioa: hainbat gogoeta” azterlanean Dörnyeik Motibazioaren Psikologian eginiko teoriak aztertu ditu (Dörnyei,1994). Teoria horietako batean itxaropena eta balioa direla arrakastarako elementu nagusienak aipatzen du. Jarreratik portaerarako jauzia emateko, lortuko dugun hori guretzako garrantzitsua izan behar da (esate baterako euskara ikastea) eta gainera, gai hori lortzeko aukera dugula pentsatu behar dugu. Izan ere, guretzako baliorik ez badu, eta gainera, lortzeko itxaropenik ez badugu, nekez lortuko dugu ezer ganorazkorik.

Edozein prozesutan aurretik izandako esperientziak sekulako garrantzia hartzen du, euskaraz bada esaera bat egoera hau azaltzeko egokia izan daitekeena “Aurreak erakusten du atzeak nola dantzatu”. Horrela, bizitzan izandako garaipen edota porrotek, eta batez ere, horiek arrazoitzeko ematen diren azalpenek garrantzia handia dute aurrera egiteko itxaropena izateko edo ez. Esate baterako, denok ezagutzen dugu euskara ikasten ibili den norbait, baina prozesua amaitu baino lehenago dena bertan behera utzi duena. Pertsona horrek izandako porrota faktore kontrolagaitzei egozten badie (nik ez dut balio horretarako, nik ezin dut ikasi) arrakastarako oso aukera gutxi izango ditu, itxaropena oso txikia izango da. Porrotaren arrazoiak faktore kontrolagarriei botatzen badie (ezin izan nion behar beste denbora eskaini, irakaslea ez zen ona...) itxaropen handiagoa izango du bigarren saiakeran helburua lortzeko. Norberaren autoestimak ere pisu handia du gai honetan.

Aipatu dugun beste aldagaia, balioa da. Esaterako, eskaraz jakiteak zer ekarpen egiten digun argi edukitzeak asko laguntzen du, euskaraz jakiteari ez badiot aparteko baliorik ikusten oso zaila izango da euskara ikasteko prozesua arrakastatsua izatea.

Aipatutako azterlan horretan Peralesek euskara ikasteko helduen motibazioaren inguruko hainbat lan aztertu ondoren , oro har, euskara ikasteko motibazioan bi noranzko daudela esaten du: bata, integratiboa eta, bestea, instrumentala. Gainera, sarritan kontrako ustea izaten badugu ere, azterlan hauek erakutsi dute, noranzko

integratiboa instrumentala baino indartsuagoa dela. Hortaz, asko dira lana bilatzeko ikasten dutenak, baina gehiago dira euskal komunitateko kide sentitzeagatik ikasten dutenak. (Perales, 2004)

Ikus ditzagun Fagor Ederlanen euskara planaren barruan euskara ikasten ari diren langileek “*euskara zergatik ikasi nahi duzu?*” galderari emandako erantzuna:

- Euskal Herriko hizkuntza delako
- Lankideekin euskaraz aritzeko
- Seme-alabei etxeko lanekin laguntzeko
- Lankideak euskaraz ari direnean eta niregana gaztelaniaz zuzentzen direnean ez naizelako eroso egoten
- Euskarazko prentsa irakurri ahal izateko
- Bezeroei harrera euskaraz egin ahal izateko
- Euskaldun sentitzeko
- Oharrak euskaraz idatzi ahal izateko
- Jende berria ezagutzeko, gazte gehienek euskaraz egiten dutelako
- Beste lanpostu batera aldatu ahal izateko

Erantzun hauetan enpresa horretako langileek motibazio integratiboa eta motibazio instrumentala dutela ikusten da. Gehiago dira euskal hiztunen taldean arrotzak izaterik nahi ez dutelako eta euskal kultura ezagutu nahi dutelako ikastea erabaki dutenak.

5.4. NOLA MOTIBATU EUSKARA IKASTEKO

Orain arte esandakoak aintzat hartuta eta Dörnyei-ren ikasleak motibatzeke emandako “aginduak” oinarri hartuta, enpresetako langileak euskarara hurbildu eta euskara ikasteko prozesuan kontuan hartu beharrekoak zerrendatu ditut atalka (Dörnyei,1994):

HIZKUNTZA

- 1.- Hartu kontuan osagai soziokulturalak (filmak,jatorrizko hiztunak...)
- 2.- Piztu ikasleen kontzientzia kulturala horien eta xede-hizkuntzaren kultura alderatuz.
- 3.- Sustatu erdal hiztun eta euskal hiztunen arteko harremanak
- 4.- Indartu ikasleengan motibazioaren noranzko instrumentala euskara ikasteak ekarriko dizkien onurak bistaratzuz

IKASLEA

- 5.- Indartu ikasleen autokonfiantza helburua lor dezaketela sinestaraziz
- 6.- Areagotu ikasleei hizkuntza ikasteen eraginkorrak direlako sentipena
- 7.- Areagotu ikasleengan beren hizkuntz gaitasunaren pertzepzio positiboak. Azpimarratu egin dezaketena egin ezin dutenaren aurrean.
- 8.- Gutxitu ikasleen antsietatea, giro adeitsua eta mehatxurik gabea sortu
- 9.- Ahalegindu ikasleen lotu ditzaten porrotak behar hainbat ez ahalegintzearekin eta ez dezatela pentsa berezko ezintasuna dutela
- 10.- Lagundu ikasleei tarteko helburuak zedarritzen.
- 11.- Ikastaldiaren edukia edukia erakargarria eta pizgarria izan dadila

IKASKUNTZA

- 12.- Erabili benetako materialak

13.- Aztertu ikasleekin batera aukeratutako materiala, indarguneak eta ahulguneak eztabaidatuz

14.- Piztu ikasleen jakin-mina eta atentzioa, tarteka eskaini espero ez dutena

15.- Atazak moldatu ikasleen interesa pizteko

16.- Zuhurtziaz jokatu atazaren zailtasuna ezartzerakoan.

17.- Areagotu ikasleen arrakastarako itzaropena aldez aurreko prestaketak eginez, argibideak emanaz.

18.- Lagundu ikasleei produktu bukatuak, gerora erabili ahal izango dituztenak, sortzen

IRAKASLEA

19.- Ahalegindu ikasleekin enpatizatzen, zeure izaerarekin bat etorriz, eta jarrera irekia mantenduz.

20.- Laguntzailea izan, autoritatea baino

21.- Indartu ikasleak bere kasa ikas dezaten

22.- Erabili atazak motibazio intrintsekoa handitzeko eta estrintsekoa intrintseko bihurtzeko

23 - Eskaini feedback informatzailea ebaluatzailea baino

IKASLE TALDEA

24.- Gogoratu talde helburuak. Ebaluatu aldizka-aldizka helburuen lorpen maila

25.- Taldearen arauak taldekideenak dira. Argitu horien behar hainbat.


27.- Ebaluazioak motibazio intrintsekoan izan dezakeen ahalegina saihestu, ikasleen arteko alderaketak baztertu. Bakoitzari bere ebaluazioaren berri eman pribatuan

28.- Sustatu talde sentipena

29.- Erabili maiz elkarlan teknikak, bikoteka, taldeka

6. ERDAL HIZTUNAK ERAKARTZEKO MODUAK.

Enpresetako euskara planek ezin dute jokatu erdaldunen kolektiboak existituko ez balu bezala, are gutxiago euskara planak Euskal Herriko eskualde guztietara zabaltzen ari diren honetan. Erdal hiztunak euskara (erabilera) planetako agente aktibo izatea lortu behar dugu. Argi dago era honetako plan baten azken helburuak erabilera izan behar duela, baina euskara erabiltzera iristeko abiapuntu desberdin ugari dago. Kontua da euskararen errotarriari buelta eman behar diogula eta talde bakoitzak bere abiapuntua utzi eta urratsak ematea lortu behar dugula



8. irudia

Erdaldunen kolektiboa hartzen badugu, azken helburua, helburu pertsonala, euskaraz ikastea da. Baina ezagutza helburuaz gain, erdaldunen parte hartzea eta inplikazioa ezinbestekoa da euskara planeko helburuak lortzen joan ahal izateko. Bestalde, argi izan behar dugu euskaren erabilera sustatzeko orduan zenbait erdaldun duten lanpostuagatik, jokatzeko duten rolagatik, beste batzuentzako erreferente direlako edota beste arrazoi batzuentzatik oso estrategikoak direla eta hauetako asko, gainera, euskara planetan eragile garrantzitsuak direla. Beraz, euskarak galdutako hainbat funtzio, erabilera eremu, berreskuratzen joateko behar beharrezkoa dugu erdaldunen inplikazioa, erakundeetako euskara planek erdaldunak erakartzea lortu behar dute.

Baina, nola lortu erdaraz eroso eta inolako arazo barik dagoena erakartzea? Nola egin erdaldunek euskararen normalizazioaren aldeko esfortzu bat egitea? Eta, nola lortu esfortzu horri eustea helburua lortu arte? Ez da erraza galdera hauei erantzuna ematea, baina saia gaitezen erantzuna bilatzen.

Lan munduko euskara planetan erdaldunak erakartzeko kontuan hartu beharrekoa hainbat elementu:

- Parte hartzea
- Informazioa vs komunikazioa
- Formazioa
- Hurbiltasuna
- Euskal hiztunen portaera
- Hizkuntza eskubideak
- Aitormena
- Harreman sareak
- Hizkuntza eta kultura

6.1. PARTE HARTZEA

Erabilera planak, planak dira, euskara gehiago erabiltzea helburutzat hartuta planifikatutako ekintzen multzoa. Horrela bada, erdaldunen parte hartzea ere planifikatu egin behar da eta parte hartze hori ez da mugatu behar soilik euskara ikastera. Erdal hiztunek helburuak, bitartekoak finkatzen (gestio planak, plan estrategikoak), euskara planak kudeatzen (Euskara Batzordean, Jarraipen batzordean) zenbait erabilera helburu lantzen (errotulazioa, oharrak...), lankideen motibazioan eragiten... parte hartu dezakete euskal hiztunekin batera, baldintza bakarra gogoia izatea da, euskal hiztunen komunitateko kide izateko gogoia. Emuneko metodologiaren barruan “Ibiltari¹” izeneko programak erakutsi du hiztun komunitateak bereiztu gabe jokatzeko sarritan normalizazioa lortzeko bidean urrats sendoagoak ematea dakarrela. Erdaldunekin adostutako helburuek oinarri sendoagoa dute.

Erdaldunen parte hartzeak ez du esan nahi euskal komunitatearen trinkotzea alde batera utzi behar denik, normalizazioa lortu nahi badugu euskal hiztunen taldea sendotzea ezinbestekoa baita. Agian, zenbait enpresatako egoera soziolinguistikoak erdaldunen parte hartzea kronologikoki antolatzea eskatzen du; hau da, trinkotasun maila minimo bat lortu arte erdal hiztunen parte hartzea gehiago mugatu, euskara planean parte hartu bai, baina ez denok denean, zenbait ekintza komunak izan daitezke baina beste zenbaitetan talde linguistikoka funtziona dezakegu

Erdalduna ≠ euskararen normalizazioaren aurka. Sarriegitan euskaraz ez jakitea eta euskararen kontra egotea lotu egiten ditugu eta ez dauka inolako izateko arrazoirik. Izan ere, azken urte hauetako esperientziak erakutsi digu erdaldunak, oro har, prest daudela laguntzeko, parte hartzeko, iritzia emateko edota gutxien-gutxienez entzuteko. Ekuazio hau barneratuta edukitzeak eragiteko aukerak hasiera-hasieratik murriztea dakar, *“proposamen horrekin joaten banaiz, txakurraren salara bidaliko nau”* edota *“horrengana alfer-alferrik joango naiz eta ez daukat alferrik galtzeko denborarik”* bezalako esaldiak sarri askotan geure aurreiritzietan daude oinarrituta eta nahigabe guk geuk, euskara

¹ Erakunde baten barruko mikroplangintzak, departamentuka edota guneka antolatuta. Departamentuko guztiek parte hartzen dute helburuak definitzen, ekintzak planifikatzen, jarraipena egiten... Guztien adostasuna bilatzen da

planetan era batera edo bestera eragile garenok, jartzen ditugu oztopoak. Beraz, ez dugu inolako beldurrik izan behar erdaldunengana hurbildu eta gauzak planteatzeko.

6.2. INFORMAZIOA VS KOMUNIKAZIOA

Bi termino hauek sarritan nahasten ditugu, ikus dezagun bien arteko diferentzia (Emun, 2007):

- **Informazioan**, igorlea, hartzailea eta mezua izaten dira. Informazioa norabide bakarrekoa da, igorleak hartzaileari mezua zabaltzea.
- **Komunikazioan**, hauez gain, FEEDBACKa egon beharko luke, informazioa zabaltzeaz gain hartzailearen erantzun bat dago, hartzailearen parte hartzea, testuinguru zehatz batean mezu esanguratsuak trukatzuz eta interpretatuz.

Maila honetan edozein euskara planek bertako langile guztiak (erdaldunak barne) informatuta edukitzeko behar diren bitarteko guztiak jarri beharko lituzke (berripaper, bilera, euskararen txokoa...) Izan ere, horrela lortuko dugu egon daitezkeen beldurrik, aurreiritziak, susmoak... uxatzea. Faktore horiek izaten dira sarritan normalizazio prozesua oztopatu edota gelditzen dutenak.

Hala ere, euskara planaren helburua informatzea baino komunikatzea izan behar du, enpresako agente guztiekin iritziak, iradokizunak, erabakiak... trukatzeko bide zuzenak eta eraginkorrak behar ditugu. Horrela zera lortuko dugu:

- Euskara Batzordeak (lidergoak) prozesua bultzatzeko duen intentzioa ikustea.
- Jendearen parte hartzea altuagoa izatea.
- Aldaketaren kontrako pertzepzioak eta barrerak hautsi ahal izango ditugu, eta konponbideak aurkitu. Arazoak konpontzeko gaitasuna handitzea
- Tentsio maila egokia lortu eta erakundea modu kontrolatuan mobilizatzea.

- Helburuen inguruan sinergiak (indarrak) batzea
- Sare informalak sortzea (lan taldeak...)
- Parte hartzea bultzatzea
- Zurrumurruak desagertzea.

6.3. FORMAZIOA

Euskara planetako defizit nagusienetakoa enpresako langileek (euskaldunak + erdaldunak) hizkuntzaren prozesuaren inguruan duten ezjakintasuna da. Ezjakintasun horrek norabide falta sortzen du eta egiten dena zalantzan jartzeko joera nagusitzen da. Iñaki Martínez de Luna (2003) *“Lantegi nahiz administrazioan diharduten euskara teknikariek ondo baino hobeto ezagutzen dute formazio hutsune hori; izan ere, euskararen normalkuntzarako estrategia edo neurri berriak proposatzerakoan, horiek onartu behar dituztenei zergatiak azaltzeko nahikoa lan du teknikari gaixoak. Hots, proposaturikoa enpresetako edo administrazio nagusiek gutizia edo gehiegikeriatzat jotzeko arriskua dago, errealitate soziolinguistiko korapilatsuaren benetako premiak hurbiletik ere ezagutzen ez dituztelako.*

Gizarteak soziolinguistikaz duen ezjakintasuna da euskalgintzako aditu eta euskaltzale xumeen diskurtsoen arteko arrakalaren zioa. Batetik, euskalgintzako aditua kezkatu agertzen da, bere diskurtsoak gizartean topatzen dituen zailtasunak ikusita. Bestetik, euskara ematen ari den aurrerapausoak nahikoak direla sinistuta, borondate oneko euskaltzaleak ez du gure hizkuntzaren larrialdia ezagutzen.

Euskararen diskurtsoak berriro ahal izateko, gizarteak soziolinguistikaz blaitu behar du, bere diskurtsoak euskalgintzaren planteamenduekin bat egin dezan. Bestela, oinarri sozialaren faltan, euskalgintzaren lana alferrikakoa izango da”

Euskara planean markatzen diren helburuak eta ekintzak kontestualizatzen eta arrazoitzen laguntzen du hizkuntzaren inguruko formazio minimo bat edukitzeak. Iñaki Martínez de Luna, (2002) *“Euskararen mundua profesionalizatu zaigun hein berean gizartea bazter gelditu da. Horregatik, gizartea soziolinguistikaren konplexutasunaz*

jantzi behar dugu; hizkuntz gorabeheraz informatu eta formatu; arestian proposatu dugun hausnarketara hurbilarazi. Soilik hizkuntz errealitate horretaz jendea jabetu ondoren, egingo du bere gizarteak hizkuntzaren berreskurapenaren ardura.”

Besteak beste, era honetako galderari erantzuna eman beharko litzaieke formazio bidez:

- *Nola egiten da pertsona bat hiztun?*
- *Zein da zure hizkuntz ibilbidea? Eta zure familiarena?*
- *Nork nori zer eman behar dio? Eta jaso?*
- *Hizkuntz tipologiak eta horien arteko harremanak.*
- *Zer da Hizkuntz komunitatea? Eta gurea nola dago?*
- *Zer da hizkuntz berekoikeria? Eta hizkuntz ekologia?*
- *Nola galtzen da hizkuntza bat? Eta nola berreskuratzen da?*
- *Euskara zer da modernoa, klasikoa edo etnikoa? Edo beste zerbaite?*
- *Hizkuntza minoritarioak eta minorizatuak.*
- *Zein da euskararen egoera Euskal Herrian? Eta zure erakundeetan?*
- *Zer egiten da enpresako euskara biziberritzeko?*

Galdera hauen erantzuna izateak norbanakoak hizkuntza baten normalizazioan jokatzeko duen papera ulertzeko balio dezake. Dena den, argi izan behar dugu enpresa batean era honetako ezagutza banatzea ez dela batere erreza, eta beste alor batzuetan bezala edukiak (zer) bezain garrantzitsua da transmititzeko modua (nola). Lan munduko erakundeek duten ohitura, egitura, egitekoa eta abarreatik formazio hau tantaka-tantaka eman beharrekoa da eta gainera bide eta euskarri ezberdinak erabili beharko dira. Ezaugarri hauek eman beharreko formazioa ondo antolatu, planifikatu, behar dela adierazten dute

Formazio zabaltzeko erabili daitezkeen euskarrietako batzuk:

- Horretara bideratutako modulu laburrak
- Erabilera talde, eztabaida talde, euskara eskola eta abarretako hausnarketa saioak
- Langile eta teknikarien arteko elkarrizketa informalak

- E-maila bidezko mezuak
- Euskara planaren berripapera eta euskaren txokoa
- Beste enpresa batzuekin esperientziak trukitzea
- Lehiaketak. Hizkuntzen Ginkana bezalako lehiaketak oso interesgarriak dira
- Enpresatik kanpoko erreferenteak ekartzea euren esperientziak kontatzera. Esate baterako:
 - Jon Maia “Rio Mundo” izeneko liburuan etorkinen integrazioaz egiten dituen hausnarketen inguruan jarduteko.
 - Iñaki Eizmendi eta Julio Ibarrek guraso erdaldunentzako prestatu duten saioa
- ...

6.4. HURBILTASUNA

Azkenaldi honetan asko hitz egiten da erdaldunak erakarri, euskara saldu, euskaldun eta erdaldunen arteko zubiak eraiki eta antzeko kontzeptuez. Euskaingintzan ari garen gehientsuenok euskara normalizatzeko ñabardura batzuk goitik behetik bat gatoz horien garrantziaz, baina beste kontu bat da hori nola egin?

Andoni Egañak elkarrizketa batean zera zioen: *“Euskararen mundura jauzi egitea pentsatu ez duen horrengan ere pentsatu behar dugu. Guk euren ezagutzen dugu eta eurek gurea ezagutu dezaten gonbidapena luzatu behar diegu, handiak txikia ikusten ez duen bitartean, txikiak edonora begiratzen duela handia ikusten duen arren”*

Nire iritzian lortu beharrekoa erdaldunentzat euskal hiztunen komunitate erakargarria egitea da, euskaraz ez jakitearren/egitearren zerbait galtzen duten sentsazioa izanaraztea. Horretarako euskal komunitateak erdaldunengandik gertu egon behar du. Segur aski, erdaldun batek bere lankide euskal hiztunen komunitatea dinamikoa, alai eta irekia dela ikusten badu, talde horretako kide izateko gogoia sortuko zaio. Ez da goizetik gauera komunitatez aldatuko, baina poliki-poliki ekintzatxo batzuetan parte hartzen hasten bada, eroso sentitzen bada, aurrera egingo du gero eta gehiago inplikatur euskararen normalizazioan. Hasierako hurbilpen hau lortzeko ekintzen ludikotasunaz jokatzeko izan daiteke modu bat:

- Euskara eguneko olinpiadak (Ulma 2007an)
- Lehaiketak: Hizkuntzen ginkana (IKS 2006an)
- Mendi irteerak, afariak, egun pasak ...

Erdal hiztuna zenbat eta gehiago hurbildu euskaldunen taldera orduan eta laguntza gehiago jasoko du hauengandik. Euskaraz ikastea erabakitzen badu enpresako lankide euskaldunak erabilerarako jauzia emateko euskarri ezin hobea izan daitezke. Ingurune euskalduna ezinbestekoa da euskara erabil ahal izateko. Helburu horrekin antolatu daitezkeen hainbat ekintza:

- Mintza saioak
- Berbalagana
- Bazkaletgia

Orain arte aipatutakoak ikusita badirudi erdaldun-euskaldun harreman honetan lehengoaren egitekoa jasotzea dela eta bigarrenarena ematea. Baina harreman mota honek ez du luzaroan irauten. Izan ere, ematen ari denak ere jaso egin behar duelako ematen jarraituko badu. Zer da egoera honetan erdaldunak euskaldunari eskaini diezaiokeena? Jarreratik portaerako aldaketa, gero eta leku gehiagotan euskara erabiltzea.

6.5. EUSKAL HIZTUNEN PORTAERA


Aurreko atalean erdaldunek euskara plana oso gertu sentitu behar dutela esan dugu eta zalantzarik gabe horretarako pertsonen arteko harremanak, hizkuntza komunitateen arteko igurtziak, dira garrantzitsuenak.

Beraz, aztertu dezagun euskaldunek euskara normalizatzeko orduan izan beharreko portaera. Alde batetik aipatu dugun moduan laguntza ematearen kontua dago, erdaldunei euren euskalduntze prozesuan laguntza ematea, baina aldi berean, erdaldunek ikusi egin behar dute euskal komunitatearentzako garrantzitsua dela euskara erabiltzea eta euskal komunitateak konpromiso bat eskatzen diela. Euskara planak elkarrenganako konfiantzan oinarritu behar dira

Beste batetik, Xabier Payak Argiari eskainitako elkarrizketa batean esaten zuen moduan gaztelania ez da bekatua, gaztelaniaren erabilera “deskriminalizatu” egin behar da, ezin gara “egizu euskaraz” bezalako mezuak behin eta berriz zabaltzen ibili. Presio pixka bat egin behar da, erdaldunek euskara beharrezkoa dutela ikusi behar dute, baina ahal dela inposaketa kutsurik eman gabe. Izan ere, inposatutako guztien aurrean kontrako jarrerarako joera oso nabarmena da gure artean.

Horrela bada, euskara erabili nahi duen euskaldun batek egunaren buruan makina bat hizkuntza gatazka izango ditu bere lankide erdaldun elebakarrekin. Gatazka horietan hartzen duen jarrera eta portaera dira bere helburua (euskaraz egitea) arrakastaz lortzeko gakoak. Psikologiaren ikuspegitik norbanakoak bere espazio propioa kontrola dezake. Hortaz, espazio propio hori landuta, gatazka linguistikoen aurrean norberak izan beharreko portaera landuta, lortuko dugu bestearen portaeran eragitea edota, gutxien-gutxienez, hausnarketara bultzatzea. Hizkuntza minorizatuak bizi duen menpekotasun egoeratik ateratzeko asertibitate linguistikoa da elementurik garrantzitsuenak (Ferran Suay i Lerma-Gemma Sanginés Saiz, 2005)

Pertsonaren jokaera aztertzeko hiru faktore hartu behar dira aintzat:



9. irudia

Iturria: TELP tailerra. EMUN 2007

Jokaeran eragiteko hiru faktore hauen arteko koherentzia bilatu behar dugu, hau da, pentsatzen dudana egiten dut eta gustura sentitzen naiz

Ferran Suay i Lermak eta Gemma Sanginések katalana erabili nahi dutenen portaera lantzeko Taller d'espai linguistic personal, TELP, izeneko tailerrak sortu dituzte. Emunen egindako tallerrean hizkuntza gatazka baten aurrean euskal hiztunak izan beharreko jokabidearen ondorengoak aipatu zituzten:

- Hizkuntza gatazka baten aurrean solaskidearekin eztabaidan sartzeak etekin gutxi ematen du; ekintzak, portaerak, du indarra. Saihestu eztabaidan sartzea edota zure jokaera argudiatzea
- Norberak norberaren espazioa kontrola dezake, nire jokabideaz gauza asko adierazten dizkiet besteei.
- Hizkuntza gatazka asko aurreikusi ditzakegu. Beraz, aurrez prestatu gaitzke. Egoera horietan nola jokatu eta zer errekurtso erabili prestatu dezakegu.

- Gainontzekoek ere hizkuntza gatazka egoeretan emozio negatiboak bizi ditzakete. Beraz, gure jokabideak euren sentimenduetan eragin dezake.
- Geure aurreiritziak dira gure jokabidea gehien mugatzen dutenak. Aurreiritziak aldatu daitezke
- Jokaera gehientsuenak ikasitakoak dira, beraz aldatu daitezke.
- Sarritan normalizaziorako bidea urratsez urrats (progresiboki) egitea egokiagoa izaten da. Hobe da gauza txikiak egitea, denari golpetik heldu eta erreta bukatzea baino.

6.6. HIZKUNTZA ESKUBIDEAK

Hizkuntza eskubideak hor ego arren, ez da harritzeko oraindik euskal hiztunei euskara erabiltzeko eskubidea ukatzen dien jendea aurkitzea. Egia da, aldi beran, euskararen estatus juridikoa ez dela berdina Euskal Herri osorako eta horrek euskal hiztunen artean aldeak sortzen dituela.

Berdintasunaren ikuspegitik enpresak langile guztien eskubideak bermatzera jo behar du. Arlo honetan eta hizkuntza eskubideak bermatzea helburu izanda bi bide bereiztu behar dira:

- Erakundearen bidea
- Norbanakoarena.

Erakundeak bitarteko guztiak jarri beharko lituzke bertako kideen hizkuntza eskubideak aitortzeko eta errespetatzeko. Norbanakoen arteko harremanetan beste aldagai batzuk sartzen dira jokoan (informaltasuna, konfiantza, gaitasuna, akordioa...) eta horien konbinazioaren arabera izango da emaitza.

Euskal hiztunok sarritan erabiltzen dugu eskubideen kontu hau, baina gutxi dira eskubide horiek defendatzeko prest daudenak, euskal komunitateak urteetan izan duen (eta duen) sumisio egoerak kalte hau ekarri du. Sarritan euskaldunok gara bi hizkuntzak maila berean jartzen ez ditugunak, gaztelania edota frantsesaren estatusak eta euskararena ez datoz bat. Euskaldun gehienok honela jokatzen badugu nola lortuko dugu erdaldunak hizkuntzen arteko berdintasun kontzeptua ulertzea eta euskaldunoi euskaraz jarduteko dugun eskubidea aitortzea?

Enpresa edota erakundeetan eskubideen inguruan lan didaktikoa egin beharrean gaude, kolektiboak gaia aztertu eta ondorioak atera ditzan. Bide horretan erabilera taldeetan, berriaz sortutako eztabaida taldeetan, formazio saioetan ... gaiaren inguruko hausnarketa bultzatzea interesgarria da, bi hizkuntzen estatusaren arteko konparaketa egiteak asko lagundu dezake ondorioak ateratzeko.

Bestalde, erakunde osora hizkuntza eskubideen zabalkundea egiteak ere asko lagunduko du hizkuntza normalizatzeko egiten diren hainbat ekintza ulertzeko.

Azkenik, orain arte hizkuntza eskubideak, gehienetan, euskal militantziak egindako eskaeratzat hartu izan dira. Printzipio ideologikotzat hartu izan dira eta ez, ostera, kontsumo-eskubide moduan. Bigarren hau askoz gehiago jorratu beharreko arloa dela iruditzen zait eta Kontsumo Legea izan daiteke abiapuntua.

6.7. AITORMENA

"Nik, euskaldun zahar honek, ez dut ahalegin berezirik egin euskal hiztuna izateko.

Zuk, euskaldun berri horrek, ahalegin handiak egin dituzu euskal hiztuna izateko.

Mila esker, on egiten ari zarelako.

On egin, euskaldun bizitzeko aukera duzulako."(Iñaki Arruti, 2005)

Iñaki Arrutik euskaldun berriei egindako errekonozimendu honek, adibide bat izanik ere, ondo erakusten du euskara normalizatze lanetan egindako ahalegina baloratzeak duen garrantzia. Era honetako aitormenen baliorik handiena da euskaldunen hizkuntza komunitateak bere ateak zabal-zabalik dauzkala eta oso gustura hartuko lukeela bere baitan adieraztea. Izan ere, enpresa munduan euskara ikasten ari diren askoren motibazioak noranzko integratzailea du.

Behar-beharrezkoa da euskararen normalizazio bidean egiten den ahalegina errekonozitzea eta ez bakarrik euskara ikasten ari direnena. Euskara Planetako egiturari lanean ari direnen (koordinatzailea, Euskara Batzordeko kideak, lantaldeetako kideak ...) lana errekonozitzea euren eginahalean irauteko oso garrantzitsua da. Eguna joan eta eguna etorri euskara planetik tira eta tira aritzea oso nekeza da, batez ere, euskara panak onarpen maila txikia duen guneetan. Motibatzailea motibatuta edukitzea ezinbestekoa da.

Bestalde, euskaldundu nahi duenari euskalduntzearen baitako bi prozesuen (ikas prozesua eta gizarte prozesua) berri eman egin behar zaio. Abiatu aurretik prozesu horretan zer nolako baldintzak, zailtasunak, baliabideak... izango dituen jakinarazi egin behar zaio Bere prozesua antolatu ahal izateko egin behar duen ibilbidea zein den jakitun egon behar du. Ez da komeni espektatiba faltsurik sortzea, horrek gehienetan porrotera garamatzalako. Informazio argiak asko lagunduko dio bere prozesua aurrera eramaten.

Euskalduntze prozesuan ari denak erreferenteak bilatuko ditu, *"nire maila zuen norbaitek lortu du lankideekin euskaraz jardutea?"*, Erreferente horiek izateak eta beraiekin esperientziak trukatzeko asko lagunduko die. Euskara planak euskalduntzen ari direnei erreferenteak eskaintzeaz gain, eurak ere beste batzuentzako erreferente bihurtzea lortu behar du.

6.8. HARREMAN SAREAK

"Gure irudikoz, euskarazko erabilerak ez du aurrerapen nabarmenik ezagutuko, baldin eta gizarte multzo handiek, eskolaz gain, ez badute euskarazko esperientzia luze eta sakonik talde informalen batean, dela talde hori familia den, dela sare horizontaleko talderen bat den. Berezko talde informal horietan garatzen baitira benetan hizkuntzazko erraztasuna, atxikimendua eta ohitura" (Jauregi, Pello, 2003)

Adierazpen honetan Jauregik argi uzten du ikaste prozesua eta gizarte prozesua elkarrekin doazela, euskaltegietatik edota euskara eskoletatik kanpo badugula zer egin. Hortaz euskara ikasten ari diren langileak euren berezko harreman sareetan (familia, kuadrila, lantaldea, kirol-taldea...) euskara erabiltzeko dituen aukera guztiez baliatu dadila lortu behar dugu.

Hizkuntzaren erabilera ohiturak aldatzean Goleman-en (1995) ustez abilezia teknikoek baino (hau da hizkuntza gaitasuna, edo ezagutza edo hau ikasteko duen koefiziente intelektuala...) abilezia emozionalek izango dute garrantzia edo eragina (euskara erabiltzeak sortzen dion sententzioa, euskarak suposatzen dizkion lotura afektiboak, emoziozko aldaerak...). Golemanen ustez gainera, bi abilezia hauek proportzio desorekatuan banatzen dira: abilezia teknikoek %20ko eragina duten heinean abilezia emozionalek %80ko eragina izango dute

Ikuspegi hau aintzat hartuta erdaldunak euskal hiztunekin hartu-emanetan jartzeko ahalegin berezia egin behar dugu, baina harreman horretan euskal hiztunek talde sendoa osatu behar dute, erakarpen indarra ganorazkoa izan dadin. Ingurune euskalduna bere eskura duena aukera horietaz baliazera bultzatu behar dugu. Beste askotan bezalaxe, sarritan zailena lehenengo urratsa ematea da, *nola eskatu horiei bazkalorduan beraiekin joan nahi dudala bazkaltzera? Edota oso giro polita dutela eta atsedendian gustura egongo nintzatekeela euren tartean? Edota nola esango diot Urliari asteburuan gurekin mendira etortzeko eta euskaraz hitz egiteko aukera izango dugula?* Erantzuna erreza da: daukazun nahi edo gogo hori esplizitatuta. Esperientziak esaten dit gauzak taldean garbi azaltzen direnean aukera handiak daudela tratua lortzeko eta bide batez partaide guztien nahia asebetetzeko.

Sarritan afariak, mendi irteerak, olinpiadak, berba-laguna, lehiaketak eta antzeko ekimenak ez ditugu behar den neurrian baloratzen, are gutxiago lan munduan, baina era horretako ekintzen bidez erdaldunak euskal munduarekin kontaktuan jartzea eta kontaktu hori gustagarria izatea hainbat erdaldun euskararen normalizazio bidean jartzeko urrats txikia, baina esanguratsua izan daiteke.

Bestalde, ekintza batera erakartzea lortuz gero, errazagoa izango zaigu beste zenbait ekintzetara gonbidatzea eta pixkanaka-pixkanaka erdaldun horren eta euskal komunitatearen arteko lotura handitzen joatea. Ez dugu presarik izan behar, denbora behar izaten da hasierako beldurrei, aurreiritziei eta abarrei aurre egiteko. Hobe da lasai-lasai euskal hiztunekin duten ukipen unea zabaltzen, handitzen joatea, golpetik larregiko konpromisoa eskatu eta zeharo beldurtzea baino.

Iñigo Fernandezek (2006) ere euskal komunitateak , eta batez ere, patetikoek (Atxagak emandako definizioa erabiliz), euskara saltzen asmatu behar dutela dio, erdal hiztunak seduzitzen asmatu behar du.

“Hizkuntza baten hiztun komunitatearen izaera eta irudia oso garrantzitsuak izan daitezke pertsona batek hizkuntza jakin horren aldeko jarrera positiboa izan dezan. Eta alde horretatik, hizkuntz komunitateak interesgarri eta erakargarri suertatzen asmatu behar du, bai norbere buruarentzat eta bai gainontzeko hizkuntz komunitateen begietara.

Zentzu horretan, pizgarri polit eta indartsuak dira euskaraz sortutako liburu, disko eta film gozagarriak, adibidez, baina baita hizkuntz horretan egoki moldatzen diren kirolari, umoregile eta telebista aurkezle ezagunak ere. Maila guztietan lortu behar du erakargarri suertatzen hizkuntz komunitate batek, eta horretarako, dituen (eta ez dituen) guztiak ondo komunikatzen asmatu behar du, gainontzekoek entzun, ulertu eta baloratzeko moduan gainera “

6.9. HIZKUNTZA ETA KULTURALA

Hizkuntzak gauzak, sentimenduak, ideiak, asmoak, nahiak... transmititzeko tresnak dira, ez dago hizkuntza onik edo txarrik, hizkuntza guztiek ematen dute gizarte baten, ohitura batzuen berri. Horrela bada, hizkuntza baten jabe dena kultura baten jabe ere bada eta hizkuntza baten jabe izateko Txepetxek aipatzen duen ibilbide kulturala osatu behar dute erdal hiztunek

Bestalde, hizkuntza eta nortasuna oso lotuta daude, euskal hiztunen komunitatean parte hartzeko aukera ematen digu eta komunitateko kide izatea identitatearekin, integrazioarekin eta azken finean nortasunarekin lotuta dago. Gero eta globalizatuagoa den mundu honetan, euskarak ezberdin izan eta sentitzeko aukera ematen digu euskarak. Beraz, asko da irabazi dezakeguna euskara ikasiz eta erabiliz eta ezer ez galtzen duguna. Hara zer aportatzen digun hizkuntza zahar eta “bitxi” honek!

Erdal hiztunek euskara ikasiz eta euskaldunen hizkuntza komunitatean sartuta irabazteko zer duten ikusi behar dute? Argumentu baliagarria izan daiteke erdaldunen motibazioan eragiteko

Euskarara hurbiltzen direnek hau guztia era naturalean jasotzea lortu behar dugu. *“Euskaraz bizi direnek modu informalean egitea transmisio hori bilatzen dugu, azken batez taldetxoetan sortzen den harreman motak hizkuntza eta kulturaren transmisioa uztartzen ditu, sentimendu eta bizipenak transmisio horren giltza direlako. Antzerako zaletasunak, bizipenak eta gizarte ingurunea duten pertsonen artean sortzen den harremanak transmisio horretarako aukera ematen dutela sinesten dugu”.* (Zapata, Oscar. 2007)


Helburu hau lortzeko enpresatan antolatu ditzakegun hainbat ekintza edo erabili dezakegun hainbat material:

- Arantxa Urretabizkaiaren saioa Euskadi Irratian. Euskal kantako oinarri hartuta historiako hainbat pasarte esplikatzeko.
- Bisitak/hitzaldiak: (Cegasan eta Electra Victorian “Arabako euskararen historia mendez mende”)
- Euskararen *historiaren inguruko formazio saioa antolatzea*
- Euskal Herriko beste zonalde batzuetako enpresetako euskara planen arteko trukeak antolatu.

7. ONDORIOAK

Azterlan honetan saiatu naiz erdal hiztunak erakartzeko enpresetako euskara planetan kontuan hartu beharrekoak aztertzen. Eremu oso zabala eta orain arte gutxi landutakoa dela uste dut eta, aldi berean, bizi dugun egoera diglosikoa ikusita, oso landu beharreko delakoan nago, asko dago oraindik ikertzeko eta egiteko. Jarraian hurbilpen honetan atera ditudan hainbat ondorio:

- Edozein jokaera aldaketaren oinarrian gogoia, aldatzeko nahia dago. Abiapuntua hori izanda, hurrengo urratsak aldaketa hori egonkortzea edota iraunaraztea eskatzen du eta horretarako aldaketa horrek balio bat eduki behar du, erabilgarria izan behar du eta, gainera, horrek guztiak eskatzen duen ahalegina egiteko modukoa, neurrikoa izan behar du. Beraz, gogoia izatea, balioa edukitzea eta neurrikoa izatea dira motibazioaren zutabe nagusienak.
- Enpresetako euskara planen azken helburua erabilera da, beraz, norbanako bakoitzaren egoeratik abiatuko den prozesua jarri behar da martxan. Prozesu honetan guztian etengabeko jokabide aldaketa bultzatzen da, jarrera aldaketa emateko bakoitzaren abiapuntua aintzat hartuta fase ezberdinetatik pasatu behar da. Bestalde, prozesu guztian zehar euskal hiztun komunitatea (euskara erabiltzen dutenak, eragile direnak) erakarpin indar zentripetoa egin behar dute, poliki-poliki euren komunitatea handitzen eta sendotzen joan dadin.



10. irudia

- Euskararen normalizazioaren aurrean antzeko jarrerak aurkitzen dira euskaldun eta erdaldunen, baina ez neurri berean. Erdaldunen kasuan euskaraz ez jakitea oztopo gehigarri oso inportantea da. Izan ere, normalizaziora iristeko egin beharreko bidea asko luzatzen du eta egin beharreko ahalegina askoz handiagoa da. Jarrera aldaketari dagokionez proposatzen diren hainbat ekintzak bi talde

linguistikoentzako baliagarriak izan daitezke. Garrantzitsua ekintza horiek aurrera eramateko jartzen diren irizpideak dira. Adibidez, sagardotegira irteera bat antolatzean bere horretan ez dio inongo ekarpenik egiten euskararen normalizazioa lantzeko prozesuari. Baina Sagardotegia Euskara planetik antolatu bada, euskararen erabileran eragiteko mezu argiak zabaldu badira ekintza hori iragartzerakoan, euskal kantu batzuk abestu badira... azken finean bertara doazenak ekintza hori euskararen normalizazioarekin lotzen badu eragin zuzenagoa eta handiagoa izango da.

- Edozein enpresatan euskara planaren abiapuntua euskal hiztunak trinkotzea izan behar du. Izan ere, gainontzeko talde guztiak erakartzeko euskal hiztunen nukleoa sendo edukitzea komeni zaigu, hizkuntza komunitatea ezagutza eta motibazioaren arabera egituratzea.
- Euskara planetan erdal hiztunek partaide izan behar dute, ez entzule edota ikusle. Planifikazioan bertan hasita euskara planaren prozesu osoan parte hartu behar dute erdaldunek, bai behintzat azken helburuarekin ados daudenak eta jokabidea aldatzeko prestasuna adierazten dutenak. Bide honetan euskaldunen eta erdaldunen adostasunaz hartutako erabakiek eta neurriek oinarri sendoagoa dute.
- Erdaldunak euskaldunen komunitatera erakartzea da helburua eta horretarako euskal komunitatea gustagarria, seduzitzailea, izan behar da, erdal hiztunari zerbait interesgarria, dibertigarria eskaini behar dio. Komunitate horretako kide izateko gogoia piztu behar zaio erdaldunari. Euskal komunitatearekin zenbat eta ukipen egoera gehiago izan eta horietan zenbat eta gusturago sentitu orduan eta handiagoa izango da talde horretako kide izateko gogoia (motibazio integratzailea).
- Motibazio instrumenatala ere bultzatu behar da eta zenbait euskaldunen mundura erakartzeko modu bakarra izan daiteke Kasu honetan euskara planak ahalegina egin behar du motibazio istrumetal horri noranzko integratzaileko elementuak gehitzen, “euskara lanpostu bat lortzeko ikasi dut, baina horretaz gain, lehen ez nituen makina bat aukera eskaintzen dizkit: harekin eta honekin zaletasunak konpartitu, irratia euskaraz entzun...”
- Euskara planetako eragileek (Euskara Batzordeko kideek, koordinatzaileak, tekniariak...) erdal hiztunengandik hurbil egoten asmatu behar dute eta hurbilpen egoera horiek baliatu jarrera aldaketa horretan beste urrats batzuk proposatzeko.

- Kontuan hartu eta landu beharreko beste faktore bat euskal hiztunek hizkuntza gatazka egoeretan hartzen duten jarrera da. Jarrera honek sendoa eta aldi berean erdal hiztuna hausnarketara bultzatu behar duena izan behar du. Izan ere, norbanakoak bere eremu propioa kontrola dezake; hau da nik neuk erabiliko dudan hizkuntza hauta dezaket, baina ez bestearena; nire hautuari eutsi eta beste horretara ekartzea izan daiteke euskal hiztun eragilearen jokabidea. Hizkuntza gatazka egoeretan euskal hiztunak euskarari eutsi, lan horretan eroso sentitu eta solaskidearen sentimenduak ez mintzea da helburua. Hau lortzeko egoera bakoitzerako modu eta teknikak landu ditzakegu (TELP).
- Jokabide aldaketa prozesua oso luzea da, hizkuntza ohiturak ez dira gauetik goizera aldatzen eta urrats hori didaktizatu egin beharko genuke. Bestalde, prozesua hain luzea izanik, uneoro elikatzen joan behar dugu, erdal hiztunek motibazioari euts diezaioten lan handia egin behar da, ikas eta gizarte prozesuak zaindu eta landu behar dira.
- Azkenik, azpimarratu nahi nuke egindako lana, ahalegina errekonozitzea oso garrantzitsua dela, Euskal komunitateak erdaldunen euskara ikasteko eta erabiltzeko ahalegina aitortzeak , komunitate horretako ateak zabalik dituztela adierazteak, ahaleginari eusteko balio dezake.

8. BIBLIOGRAFIA

- **Amundarain, Dionisio.** Isasi, Xabier. Jauregi, Pello. Lasa, Iñaki. Martinez de Luna, Iñaki. Odriozola, Joxe Manuel. Osa, Erramun. Zalbide, Mikel (2003) *Euskalduntzea krisian? Hurbilketa soziolinguistikoa* JAKIN 137. zenb. 31-68 orr.
- **Arruti, Iñaki (2005)** *Euskaldun berria, hiztuna eta hizkuntza komunitatea*
- **Dörney, Z. (1994)** *Motivation and motivating in the foreign language classroom*, in Perales, Josu (2004) *Euskara helduaroan ikasteko motibazioa: hainbat gogoeta*. Uztaro 50. zenb. 23-43 orr.
- **Emun (2005)** *Diskurtsoak* Eskuliburua
- **Fernandez, Iñigo (2006)** *Euskara nola saldu*. Euskara eta publizitatea
- **Goleman, D. (1995)** *Emotional Intelligence*. Nueva York: Bantam
- **Jauregi, Pello (2003)** Euskara eta gazteak Lasarte-Orian (II) . *BAT Soziolinguistikako Aldizkaria*. 47. zenb. 139-66 orr.
- **Keller, J. (1987)** *Development and use of the ARCS model of instruction design*, in Perales, Josu (2004) *Euskara helduaroan ikasteko motibazioa: hainbat gogoeta*. Uztaro 50. zenb. 23-43 orr.
- **Martinez de Luna, Iñaki (2002)** *Hizkuntza normalkuntzaren gaineko usteak* JAKIN 137 ZENB. 132-137orr.
- **Martinez de Luna, Iñaki (2003)** *Euskararen taupadak* JAKIN 138 ZENB. 103-109orr.
- **Perales, Josu (2004)** *Euskara helduaroan ikasteko motibazioa: hainbat gogoeta*. Uztaro 50. zenb. 23-43 orri
- **Suay i Lerma, Ferran. Sanginés Sáiz, Gemma (2005)** *Un espai per als parlants d'una llengua*. Llengua i ús 34. zenb. 27-39 orr.
- **Suberbiola, Pablo (2004)** *Euskararen erabileran nondik eragin? Zenbait gogoeta*. *BAT Soziolinguistikako Aldizkaria*. 53. zenb. 53-66 orr.

- **Viñuales, Koldo (2005)** *LIZARRA ikastola, Lizarra: Euskara herriratzen dakiena* HIK HASI aldizkaria o. alea
- **Zapata Solano, Oscar (2007)** *Mintzapraktika programak: Euskararen erabileran eragiteko tresna eraginkorrak*. Hizkunea